

## MUNDUA ZAINTZEKO ETA HOBETZEKO SORTU GAITU JAINKOAK.

Lehenik eta behin, etxean egindakoa ikusten eta komentatzen hasiko gara.

Haurrei galdetuko diegu gurasoek zer lanbide duten. Ondoren, galdetuko diegu handitan zer izatea gustatuko litzaiekeen, eta lanbide horiekin beren ustez nola hobetuko luketen mundua.

Hemendik aurrera, gauza txiki batzuk egin ditzakegu natura zaintzeko; adibidez: lurrera paperik eta txiklerik ez bota, lorategiak zaindu...

Etxean ere lagun dezakegu: mahaia jartzen, logela txukuntzen...

Beharbada, hurrengo topaketara bitartean ekintzaren bat egiteko konpromisoa har dezakete:


- etxean laguntzea
- paperak lurrera ez botatzea
- zerbait ematen digutenean eskerrak ematea
- autobus-gidaria agurtzea
- .....

Bakoitzak esan dezala hilabete honetarako zer konpromiso hartuko duen.



Horma-irudi bat egingo dugu. Goiburua letra handitan ipiniko dugu: AUPA JENDE GUZTIA! Erdian, mapamundia itsatsiko dugu. Eman haurrei irudiak (arraza eta erlijio ezberdinetakoak, haur desgaituak...), eta margo ditzatela. Ondoren, mapamundiaren inguruan itsatsiko ditugu irudi horiek. Leku pixka bat utziko dugu, gero ostadarra marrazteko. Ipuina irakurri ondoren, margotu egingo dugu ostadarra. Argi utzi DENOK BERDINAK GARELA.

Lehenengo topaketaren egunean bukatu gabe geratu zen kreazioa margotzen bukatu, eta muntatu egingo dugu, haurrek etxera eramateko.

Liburuak jaso, eta otoitz egingo dugu.







## **ORTZADARRA, KOLORE-EKIPOA**

Behin batean, batzuk besteekin borrokan hasi ornen ziren koloreak. Kolore bakoitzak handiago izan nahi zuen gainerako koloreak baino.

**BERDEAK** zioen bera zela biziaren eta itxaropenaren kolorea eta naturan zabalduea.

**URDINAK** zioen beraren esana egin behar zutela denek, ura, zerua, itsasoa eta bakea urdin- kolorekoak zirelako.

**HORIAK** ez zuen besteak baino txikiago izan nahi, alaitasunaren, eguzkiaren eta bizitasunaren kolorea zelako.

**LARANJA** kolorea denei bultzaka hasi zen, aurren-aurrena jartzeko, osasunaren, bitaminen eta indarraren kolorea zela- eta, entzun, bestela, zer di oten laranjek, mangoek, papaia- fruituek, azenarioek eta kalabazek.

Kolore **GORRIAK**, berriz, lehen tokia nahi zuen beretzat, indarra, ausardia, suharra eta suaren kolorea zelako.

Azkenik, **MOREAK** ere hitz egin zuen, lehena berak izan behar zuela esanez, izan ere, isiltasunaren, hausnarketaren, gogoeta sakonaren eta otoitzaren kolorea zen

.

Begira ornen zegoen euria ñola ari ziren koloreak eztabaidan, eta gogotik botatzen hasi ornen zen. Koloreak elkar hartu zuten eta bat egin ziren. Atertu zuenean, ortzadar moduan zabaldu ziren koloreak, ta orduantxe ohartu ornen ziren zeinen eder zen bakoitza eta denak bateraturik.



Jesus, zuk erakutsi diguzu guztiok munduan aita  
bera daukagula eta familia bat osatzen dugula.  
Baina asko dira gaur jatekorik eta etxerik gabe,  
eskola eta sendagairik gabe bizi diren haurrak;  
asko, goserik hiltzen direnak,  
Denentzat eskatzen dizugu, Jesus.:  
izan dezatela eguneroko ogia eta premiazko  
duten guztia. egizu jakin dezagula ondasunak  
guztion artean banatzen eta denok elkarrekin  
senide bezala bizitzen.

Amen.

